



EUROPAKO BATZORDEA

Brusela, 2007.07.11  
BATZ(2007) 391 azkena

## **LIBURU ZURIA**

### **KIROLARI BURUZKO LIBURU ZURIA**

(Batzordeak aurkeztua)

(2007) 932 ATALA

(2007) 934 ATALA

(2007) 935 ATALA

(2007) 936 ATALA



# AURKIBIDEA

---

<b>AURKEZPENA</b> .....	4
<b>1. SARRERA</b> .....	7
<b>2. KIROLAREN EGINKIZUNA GIZARTEAN</b> .....	11
2.1. Osasun publikoa hobetzea jarduera fisikoaren bidez .....	11
2.2. Indarrak batzea dopingaren aurkako borrokan .....	13
2.3. Kirolaren eginkizuna optimizatzea hezkuntzan eta prestakuntzan .....	15
2.4. Boluntariora eta herritartasun aktiboa sustatzea kirolaren bidez .....	17
2.5. Kirolak gizartean barneratzeari, gizarteratzeari eta aukera berdintasunari begira duen ahalmena baliatzea .....	19
2.6. Arrazismoaren eta indarkeriaren prebentzioa eta horien aurkako borroka sendotzea .....	21
2.7. Balioen trukea munduko beste parteekin .....	23
2.8. Garapen iraunkorrari laguntzea .....	25
<b>3. KIROLAREN EKONOMIA ALDERDIA</b> .....	27
3.1. Datuetan oinarrituriko kirol arloko politiketarantz .....	29
3.2. Kirolaren finantzazio publikorako oinarri seguruago baten bila .....	30
<b>4. KIROLAREN ANTOLAKUNTZA</b> .....	31
4.1. Kirolaren berezitasuna .....	33
4.2. Joan-etorri askea eta naziotasuna .....	35
4.3. Transferrak .....	37
4.4. Jokalarien agenteak .....	38
4.5. Adingabeen babesa .....	39
4.6. Ustelkeria, dirua zuritzea eta beste finantza delitu mota batzuk .....	40
4.7. Kluben lizentzia sistemak .....	40
4.8. Komunikabideak .....	42
<b>5. JARRAIPENA</b> .....	43
5.1. Elkarrizketa egituratua .....	43
5.2. Estatu kideekiko lankidetzak .....	44
5.3. Gizarte elkarrizketa .....	45
<b>6. ONDORIOA</b> .....	47

## AURKEZPENA

---

Euskal erakundeek jaio zirenetik bertatik eskuetan hartu zuten kirolaren fenomenoak, XXI. mendean gorantz datorren sektore sozioekonomiko bat.

Tradizio europazale luzea dugu dagoeneko, eta badugu zeregin bat Europar Batasunaren elkartasun eta oparotasun helburu estrategikoak lortzeko bidean. Hor txertatzen da kirol arloarekiko gure konpromisoa.

Esan behar dugu, dena dela, kirolak, zentzurik zabalenean hartuta, hau da, jarduera fisikoaren adierazpen den zentzuan, bilakaera nabarmena izan duela azken hamarkadetan, bereziki herritar gehienek duten ikuspegitik begiratuta, bizi kalitatea ongizate fisikoarekin eta osasunarekin lotua ikusten duenetik.

Bilakaera horren jakitun, Europako Parlamentuak interes handiz jarraitu ditu europar kirolak aurrean izan dituen eginkizunak eta arazoak, eta, azken urteetan, kirolarekin lotutako gaiei erregularitasunez heldu die, Liburu Zuri hau prestatzeko agindua eman zuelarik azkenik: gaur Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek elkarrekin argitaratzen dugun Liburu Zuri hau.

Gure ekimenak balio erantsi bat du, gainera, Liburu Zuria euskaraz ematen baitu, Europako Batzordearen beraren oniritziarekin. Argitalpenaren asmoa Europa euskal herritarrengana hurbiltzea da. Euskal herritarren esku jartzen den dokumentu hau, hurrengo urteetan, oinarri izango da kirol gaietako politika publikoentzat, eta eguneroko zereginetan gidari, kirol elkarteentzat eta, oro har, jendearentzat.

Dokumentu honek gizartean harrera ona izatea espero eta nahi dugu. Gure ustez lagungarria izango da kirolaren balioaz hobeto jabetzeko, ikusirik faktore positiboa dela heziketan, ludikotasunean, osasunean, kultur identitatearen sustapenean eta gizarte kohesioan.

2008ko uztaila

Eusko Jaurlaritza  
Kirol Zuzendaritza

Arabako Foru Aldundia  
Kirol Zuzendaritza Nagusia

Bizkaiko Foru Aldundia  
Kirol Zuzendaritza Nagusia

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kirol Zuzendaritza Nagusia



## 1. SARRERA

---

«Kirola gizon eta emakume bakoitzaren senipartea da eta horren gabezia ezin konpentsa daiteke», Pierre de Coubertin<sup>1</sup>.

Kirola<sup>2</sup> hedatuz doan fenomeno sozial eta ekonomikoa da eta Europar Batasunarenak diren elkartasun eta oparotasun helburu estrategikoei laguntzen die neurri handi batean. Ideal olinpikoa, hau da, nazioen eta kulturen arteko bakea eta elkar ulertzea sustatzeko kirola bultzatzea, baita gazteak horretan heztear ere, Europan sortu zen eta Nazioarteko Batzorde Olinpikoa eta Europar Batzorde Olinpikoak direla bide zabaldu da.

Kirolak erakarri egiten ditu Europako herritarrak, gehienek kirol jardueretan parte hartzen baitute erregularitasunez. Balio garrantzitsuak sortzen ditu, hala nola talde espiritua, elkartasuna, tolerantzia eta joko garbia, eta pertsona gisa hazten eta garatzen laguntzen du. EBko herritarrek gizartean era aktiboan parte hartzea sustatzen du eta, modu horretara, herritartasun aktiboa bultzatzen du. Batzordeak aintzat hartzen du kirolak europar gizartean duen funtsezko zeregina, bereziki herritarrengana hurbildu behar duen eta zuzenki ukitzen dituzten arazoak heldu behar diren garai honetan.

---

1. Pierre de Coubertin (1863-1937), frantses pedagogo eta historialaria, Olinpiar Joko modernoaren sortzailea.

2. Argitasunaren eta lañotasunaren izenean, Liburu Zuri honetan Europako Kontseiluak «kirola»z eman duen definizioa erabiliko da: «Egoera fisikoa eta psikikoa adieraztea edo hobetzea, gizarte harremanak garatzea edo lehiaketa maila guztietan emaitzak lortzea helburu dituen edozein eratako jarduera fisikoa, parte hartze antolatua edo ez antolatua bidez gauzatzen dena.»

Hala eta guztiz, kirola, era berean, europar gizartean sorturiko hainbat erronka eta mehatxu berriri aurre egin beharrean dago, hala nola presio komertziala, jokalaria gazteen esplotazioa, dopinga, arrazakeria, indarkeria, ustelkeria edo dirua zuritzea.

Ekimen honen bidez, Batzordeak lehen aldiz ekiten die kirolarekin zerikusia duten kontuei era globalean. Hona ekimenaren oinarritzko helburuak: Europako kirolaren zerginari buruzko orientazio estrategikoa eskaintzea, arazo berezien inguruko eztabaida sustatzea, kirolaren ikusgaitasuna hobetzea europar politikak lantzerakoan eta iritzi publikoa sektorearen premiekiko eta berezitasunekiko sentibera bihurtzea. Ekimen honek kontuzko arazoak argitu nahi ditu, hala nola EBko legeria kirolari aplikatzea eta, orobat, kirolarekin loturiko jarduera berriei ekitea Europa mailan.

Liburu Zuri hau ez da hutsetik abiatzen: erkidegoko xedapen multzoa aplikatzearen mende dago kirola eta Europako politikek badute eragin nabarmena, eta handituz doana, kirol eremu jakin batzuetan.

2000ko abenduan, Europako Kontseiluak kirolaren ezaugarri berezietan eta European duen gizarte funtzioaz egindako Adierazpenak aintzat hartzen zuen bai kirolak europar gizartean betetzen duen egin-kizuna eta bai horren izaera berezia ere, zeina kontuan hartu beharko litzatekeen politika komunak abiarazterakoan («Nizako Adierazpena»). Adierazpen horrek oharrarazten du kirol erakundeek eta Estatu kideek funtsezko erantzukizuna –eta federazioek betekizun nagusia– dutela kirol kontuen gidaritzan, eta azaltzen du kirol erakundeek dutela beren diziplina antolatu eta bultzatzeko zeregina, «baldin eta nazio eta erkidegoko zuzenbidearen arabera». Aldi berean, ondokoa esaten du: «Alor honetan eskumen zuzenak ez izanik ere, Ituneko xedapenen kariaz gauzaturiko jardueran, Erkidegoak kontuan hartu behar ditu kirolaren gizarte, hezkuntza eta kultura betekizunak, haren espezifikotasuna moldatzen dutenak, beraren gizarte betekizuna gordetzeko beharrezkoak diren etika eta elkartasuna babestu eta sustatzearen». Europako erakundeek aintzat hartu dute kirolak Europako gizartean duen betekizunaren espezifikotasuna –borondatezkoak diren egituretan oinarritua– osasun, hezkuntza, gizarteratze eta kultura gaitan.



Europako Parlamentuak interes handiz jarraitu ditu europar kirolak aurre egin behar izan dituen hainbat erronka eta, azken urteetan, erregulartasunez arduratu da gai horrekin loturiko kontuez.

Liburu Zuri hau egin bitartean, Batzordeak kontsulta ugari egin ditu kirolean interesaturiko zenbait alderdirekin interes komuneko kontuen inguruan, baita lineako kontsulta bat ere. Kontsulta horiek nabarmendu dute ezen gorabehera handiko itxaropenak daudela Europako kirolaren eginkizunaz eta EBren arlo honetako jardueraz.

Liburu Zuri honen arreta bildu duten gaiak: kirolaren eginkizuna gizartean, kirolaren alderdi ekonomikoa eta horren antolaketa Europan eta ekimen honi egingo zaion jarraipena. EBko jarduera berrietarako proposamen zehatzak jaso dira Pierre de Coubertin izeneko Jarduera Egitasmo batean, Batzordeak abiaraziko edo finantzatuko dituen jarduerak dauzkana. Batzordeko zerbitzuek proposamen horien aurrekariak eta testuingurua agertzen dituen lan dokumentu bat gauzatu dute; dokumentu horrek hainbat eranskin ditu kirola eta EBko eskumenez, kirola eta barne merkatuko askatasunez eta interesaturiko alderdiekin egindako kontsultez.





## 2. KIROLAREN EGINKIZUNA GIZARTEAN

---

Europar Batasuneko herritarrek interes handikotzat jotzen duten giza jardueraren eremua da kirola, eta jendea biltzeko ahalmen handia du, mundu guztiarengana iristen baita, adina edo gizarte jatorria gora-behera. Eurobarometrok 2004ko urrian azalduko inkestaren arabera<sup>3</sup>, europar herritarren %60ren batek erregulartasunez parte hartzen du kirol jardueretan, 700 000 klubetan (edo horietatik kanpo), eta klub horiek, beren aldetik, elkarte eta federazio askotako kide dira. Kirol jarduerarik gehiena egitura ez profesionaletan gauzatzen da. Kirol profesionala gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da eta, era berean, kirolak gizartean duen betekizunari laguntzen dio. Europar herritarren osasuna hobetzeaz gainera, kirolak hezkuntza dimentsioa du eta gizarte, kultura eta aisia eginkizuna betetzen du. Gainera, gizartean kirolak duen eginkizunak Batasunaren kanpoko harremanak indartzeko ahala du.

### 2.1. Osasun publikoa hobetzea jarduera fisikoaren bidez

Jarduera fisikorik ezak gehiegizko pisuaren, obesitatearen eta hainbat gaixotasunen eragina, hala nola gaixotasun kardiobaskularren edo diabetarena, areagotzen du, pertsonen bizitza arriskuan jartzen du eta zama bat da osasun aurrekontuetarako eta ekonomiarako.

---

3. Eurobarometro berezia (2004): Europar Batasuneko herritarrak eta kirola.

Batzordeak argitaraturiko «Elikadurarekin, gehiegizko pisuarekin eta obesitatearekin zerikusia duten osasun arazoei buruzko europar estrategia» Liburu Zurian<sup>4</sup>, jarduera fisikoa murrizteko joera alderantzikatzeke neurri proaktiboak ezartzearen garrantzia nabarmentzen da; bi Liburu Zurietan jarduera fisikoaren eremuan iradokitako jarduerak elkarren osagarri dira.

Kirol Mugimenduak, osasunerako onuragarria den jarduera fisikoa deiturikoaren tresna gisa (OOJF, HEPA ingelesez), beste edozein gizarte mugimenduk baino eragin handiagoa du. Kirola erakargarria da jendearentzat eta irudi positiboa du. Hala eta guztiz, osasunerako onuragarria den jarduera fisikoa sustatzeari begira, Kirol Mugimenduak duen ahalmena gutxiegi erabiltzen da askotan eta hori garatu beharra dago.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) egunero jarduera fisiko neurritsuari ekitea gomendatzen du, hogeita hamar minutu helduentzat eta hirurogei minutu haurrentzat (kirola barne hartzen duena, baina hartara mugatzen ez dena). Estatu kideetako agintari publikoek eta erakunde pribatuek lagundu beharko lukete helburu hori lortzen. Berriki buruturiko azterlanek erakusten dutenez, arlo honetan ez da aski aurreratzen ari.

- 1) 2008 urtea amaitu baino lehen Estatu kideekin jarduera fisikoari buruzko zuzentarau berriak lantzea proposatzen du Batzordeak.

Batzordeak gomendatzen du Estatu kideek, ministerio mailan, lan-kidetza estuagoa susta dezaten osasun, hezkuntza eta kirol sektoreetan, gehiegizko pisua, obesitatea eta osasunerako beste arrisku batzuk murrizteko estrategia koherenteak zehaztu eta abiaraztearren. Testuinguru horretan, Batzordeak Estatu kideak bizitza aktiboaren kontzeptua sustatzera animatzen ditu hezkuntza eta prestakuntza sistema nazionalen bidez, irakasleen prestakuntza barne.

Kirol erakundeak animatzen ditu osasunerako onuragarria den jarduera fisikoaren arloan duten gaitasuna kontuan har dezaten eta ildo horretako jarduerari hel diezaieten. Batzordeak informazioaren eta praktika onen trukea bideratuko du, bereziki gazteei dagokienez, eta arreta nagusia oinarritzko mailan jarriko da.

---

4. BATZ(2007) 279 azkena, 2007.5.30ekoa.

- 2) Osasunerako onuragarria den jarduera fisikoari buruzko (OOJF) sare bat babestuko du Batzordeak eta, hala badagokio, baita gaia-  
ren alderdi zehatzez arduratuko diren sare txikiagoak eta berezia-  
goak ere.
- 3) “Osasunerako onuragarria den jarduera fisikoa” giltzarritzat har-  
tuko du Batzordeak kirolarekin zerikusia duten bere jardueretan  
eta saiaturako da lehentasun hori kontuan har dezaten erarik ego-  
kienean bidezko finantza tresnetan, besteak beste:
  - Ikerketa eta Garapen Teknologikorako Zazpigarren Esparru  
Programa (bizitzeko era eta osasun alderdiak);
  - Osasun Publikoa Programa 2007-2013;
  - Gazteria eta Herritarrak programak (lankidetzak kirol erakun-  
deen, ikastetxeen, gizarte zibilaren, gurasoen eta toki mai-  
lako beste solaskideen artean);
  - Etengabeko Ikasketa Programa (ikasleen prestakuntza eta  
ikastetxeen arteko lankidetzak).

## 2.2. Indarrak batzea dopingaren aurkako borrokan

Kirolerako mehatxua da dopinga mundu osoan, Europako kirola barne. Lehiaketa ireki eta leialaren printzipioa ahultzen du, faktore etsigarria da kirol orokorrari begira eta gehiegizko presioaren mende jartzen du profesionala. Gainera, kirolaren irudiari erasaten dio eta mehatxu larria da gizabanakoen osasunerako. Europa mailan, bai legea-  
ren aplikaziotik nola prebentzio eta osasunaren ikuspegitik ekin behar zaio dopingaren aurkako borrokarari.

- 4) Partaidetzak ezar litezke hainbat alderdiren artean: Estatu kide-  
tako kontrol agintariak (mugazainak, polizia nazional eta tokikoa,  
aduanak, etab.), Munduko Doping aurkako Agentziek (MDA)  
onetsitako laborategiak eta Interpol, une egokian eta ingurune  
seguruan gai eta praktika dopatzaile berriei buruzko informazioa  
trukatzeko asmoz. EBk laguntza ekar liezieke ahalegin horiei  
prestakuntza ikastaroen bidez eta kontrolatzaileak prestatzeko  
zentroen artean sareak osatuz.

EB osoan gai dopatzaile ez-zilegien salerosketa droga ez-zilegien salerosketa bezala tratatzea gomendatzen du Batzordeak.

Batzordeak osasun publikoaren alorrean ardura duten alderdi guztiei hertsatuki eskatzen die osasunerako arriskutsuak diren dopingaren alderdiak kontuan hartzea. Kirol erakundeak praktika onak ezartzera gonbidatzen ditu kirolari gazteek informazio eta heziketa zabalagoa jaso dezaten gai dopatzaileez, gai horiek eduki ditzaketen medikuaren agindupeko botikez, baita horiek osasunean izan ditzaketen eraginak ere.

Dopingaren aurkako borrokan planteamendu koordinatuago bat onuragarria izango litzateke EBrentzat, bereziki jarrera komunak hartuz Europako Batzordearekiko, MDArekiko eta Unescorekiko, eta informazioa eta praktika onak trukatzuz gobernuen, dopingaren aurkako borrokarako erakunde nazionalen eta laborategien artean. Testuinguru honetan, bereziki garrantzitsua da kiroleko dopingaren aurkako Unescoko Konbentzioko Estatu kideen inplementazio egokia.

- 5) Batzordeak bidea errazteko eginkizuna izango du, adibidez Estatu kideetan dopingaren aurkako erakunde nazionalak osaturiko sare bati laguntza ekarriz.



### 2.3. Kirolaren eginkizuna optimizatzea hezkuntzan eta prestakuntzan

Hezkuntza formalean nola ez-formalean betetzen duen eginkizunaren bidez, Kirolak Europako giza kapitala indartzen du. Ezagutza, motibazioa, gaitasunak eta ahalegin pertsonalerako jarrera garatzen lagungarri gertatzen dira kirolaren bitartez transmitituriko balioak. Hala ikastetxean nola unibertsitatean kirol jardueretan sarturiko denborak osasun eta hezkuntza arloan dakartzan onurak optimizatu beharrekoak dira.

Batzordeak, Kirola 2004 ekimenaren bidez Europako Hezkuntzaren Urtean bilduriko esperientzian oinarriturik, kirola eta jarduera fisikoa bultzatzera gondibatzen du ekimen politikoaren bitartez hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan, hala nola gizarte eta herritar eskumenak garatuz, 2006ko Aholkuaren bidez, etengabeko ikasketarako eskumen giltzarriari buruzkoa<sup>5</sup>.

- 6) Kirolak eta jarduera fisikoak laguntzak jaso ditzakete Etengabeko Ikasketa Programaren bidez. Kirola dela bide hezkuntza aukeretan parte hartzea bultzatzea, beraz, lehenasunezko kontua da Comenius programak finantzaturiko ikastetxeen partaidetzarako, lanbide hezkuntza eta prestakuntzaren arloan Leonardo da Vinci programaren bidez egituraturiko ekintzetarako, Erasmus programak goi hezkuntzaren arloan finantzaturiko sare tematikoetarako eta mugikortasunerako, baita Grundtvig programak helduen prestakuntzaren arloan finantzaturiko proiektu aldeaniztunetarako ere.
- 7) Kirol sektoreak, era berean, laguntzak eska ditzake Europako Kualifikazioen Esparrua (EKE) eta Lanbide Hezkuntza eta Prestakuntzarako Europako Kreditu Sistema (ECVET) inplementatzea helburu duten banakako proposamenetarako deialdien bidez. Kirol sektorea EKEn garapenaren barrenean sartu da eta hautatu egin dute finantza laguntza jasotzeko 2007/08an. Kirolarien mugikortasun profesionalaren maila handia kontuan

---

5. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren gomendioa, 2006ko abenduaren 18koa, etengabeko ikasketarako eskumen giltzarriari buruzkoa (DO L 394 2006.12.30ekoa).

izanik, eta kualifikazio profesionalen ezagutzari buruzko 2005/36/EB Zuzentarauan erabakitakoa gorabehera, kirol sektorea ere ECVET inplementatzeko sektore pilotu gisa ezar daiteke, esku-men eta kualifikazioetarako sistema nazionalen gardentasuna areagotzeko asmoz.

- 8) Batzordeak europar ezaugarri bat emango die eskola ingurunean jarduera fisikoa modu eraginkorrean bultzatu eta sustatuko duten ikastetxeei.

Kirolari profesionalak, kirol karrera amaiturik, lan merkatuan berriro sar daitezten bermatzearren, Batzordeak azpimarratu egiten du fase goiztiarrean kirolari gazteei «karrera bikoitz» baterako kalitatezko prestakuntza emateko premia, horien etika, hezkuntza eta lanbide arloko interesak babestuko badira.

Europako kirolari gazteen prestakuntzari buruzko azterlan bat abiarazi du Batzordeak, eta horren emaitzek aipaturiko politika eta programak hornitu ahal izango lituzkete.

Kirolari gazteen prestakuntzan inbertitzea, eta prestakuntza hori sustatzea, funtsezkoa da kirolaren garapen iraunkorrari begira maila guztietan. Batzordeak azpimarratu egiten du talentudun kirolari gazteentzako prestakuntza sistemak guztiei irekiak izan beharko liratekeela, EBko herritarren artean, nazionalitate arrazoiak direla-ta, bereizkeriarik egin gabe.

- 9) Taldeak toki mailan prestaturiko jokalarari kupo jakin bat izatera behartzen dituzten arauak bateragarritzat har litezke, baldin eta pertsonen joan-etorri askeari buruzko Hitzarmenak erabakitakoekin, nazionalitate arrazoiak direla-ta, ezein bereizkeriatarako bidea ematen ez badute eta, gerta litezkeen zeharkako bereizkeria ondorioak, lortu nahi den bidezko helburu baten arabera justifikatzen badira, hala nola talentudun kirolari gazteen prestakuntza eta aurrerabidea hobetzea eta zaintzea. Europako kirolari gazteen prestakuntzari buruz egiten ari den azterlanak informazio baliotsua emango du analisi horretarako.



## 2.4. Boluntariotza eta herritartasun aktiboa sustatzea kirolaren bidez

Ondokoak herritartasun aktiboaren indargarri dira: talde batean parte hartzea, joko garbia bezalako printzipioak, joko arauak betetzea, besteeiko begirunea, elkartasuna eta diziplina, baita irabazteko asmorik gabeko klubek boluntarioetan oinarriturik kirol ez-profesionalak antolatzea ere. Kirol erakundeetako boluntariotzak hezkuntza ez-formaleko aukera ugari eskaintzen du, eta hori onartu eta hobetu beharrekoa da. Kirolak, orobat, posibilitate erakargarriak eskaintzen ditu gazteek gizartean konprometitu eta hartan parte har dezaten, eta eragin onuragarria izan dezake pertsonak delinkuentziazatik aldentzen laguntzeko.

Badira, hala eta guztiz, joera berriak kirola egiteko eran, bereziki gazteen artean. Banakako kiroletan jarduteko joera handituz doa, talde kirolen eta eraturiko egituren kaltean, eta horrek klub ez-profesional-tako boluntarioak beharrezkoak dakar.



- 10) Batzordeak, Estatu kideekin batera, zehaztu egingo ditu irabazteko asmorik gabeko kirol erakundeentzat giltzarri diren erronkak eta erakunde horiek ematen dituzten zerbitzuen ezauzgarri nagusiak.
- 11) Batzordeak lagunta eskainiko dio oinarrizko kirolari Europa Herritarrekin programaren bidez.
- 12) Batzordeak, gainera, gazteak kirolan boluntarioritza praktikatzera anima dezaten proposatuko du Gazteria Ekinean programaren bidez, gazteen trukea eta kirol gertakari handietako boluntarioritza zerbitzua bezalako arloetan.
- 13) Era berean, Batzordeak bultzatu egingo du kiroleko boluntarioritza buruzko informazioaren eta praktika hobeen trukea Estatu kideen, kirol erakundeen eta tokiko agintarien artean.
- 14) Nazio eta Europa mailako politikak lantzerakoan, kirol boluntarioaren sektoreak dituen eskaera bereziak eta premiak hobeto ulertzearen, kiroleko boluntarioritza buruzko azterlan bat abiaraziko du Batzordeak.



## 2.5. Kirolak gizartean barneratzeari, gizarteratzeari eta aukera berdintasunari begira duen ahalmena baliatzea

Kirola neurri handi batean ekonomiaren eta gizarte kohesioaren lagungarria da eta gizarte integratuagoak lortzen laguntzen du. Herritar guztiek kirolen batean aritzeko aukera izan beharko lukete, eta hartarako talde minoritarioen premia bereziei eta egoerari heldu behar zaie, baita kontuan hartu ere, gazteen, ahalmen urriko pertsonen eta ingurune behartsu eta ahuletatik datozenen kasuan, kirolak izan dezakeen eginkizuna. Kirolak, era berean, immigranteen eta atzerriar jatorriko pertsonak gizarteratzea erraztu dezake, eta kulturarteko elkarriketaren lagungarri izan daiteke.

Kirolak kide eta partaide izateko sentimendua sustatzen du eta, modu horretara, gainera, tresna garrantzitsua izan daiteke immigranteak gizarteratzeari begira. Testuinguru horretan, garrantzitsua da kirolerako espazioak bideratzea eta kirolarekin loturiko jarduerak babestea immigranteek eta hartzen dituen gizarteak era positiboan elkarrekin jardun ahal izan dezaten.

Batzordearen arabera, Europar Batasuneko eta Estatu kideetako politikan, jardueretan eta programetan kirolak gizartean barneratzeko tresna gisa duen ahalmena hobeto aprobetxa daiteke. Kirola lagungarri gerta liteke lanbideak sortzerakoan, ekonomiaren hazkundean eta tokiak biziberritzerakoan, bereziki, eskualde ahuletan. Gizarte kohesioan eta talde ahulak gizartean barneratzen laguntzen duten irabazteko asmorik gabeko kirol jarduerak interes orokorreko gizarte zerbitzutzat har daitezke.

Gizarte babes eta gizartean barneratzeari buruzko Koordinazio Metodo Irekiak kirola tresna eta adierazle gisa hartzen jarraituko du. Gizarte bazterketaren analisiari begira, kirolerako sarbidea eta kirol egitura sozialetako kide izatea elementu giltzarritzat hartuko dituzte azterlan, mintegi, hitzaldi, proposamen, politika eta jarduera planek.

- 15) Batzordeak Estatu kideei iradokiko die Progress programak eta beste programa batzuek –hala nola Etengabeko Ikasketa, Gazteriak Ekinean eta Europa Herritarrekin– kirol bidezko gizarteratzeari eta kirol bereizkeriaren aurkako borrokari euts diezaieten. Kohesio politikaren testuinguruan, Estatu kideek kontuan hartu beharko lukete kirolak gizartearen barne hartzean, gizarteratzean eta aukera berdintasunean duen eginkizuna Europako Gizarte Funtsaren eta Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren programazioaren parte gisa; era berean, beren jarduera bultzatzera gonbidatzen die Gizarteratzeko Europar Funtsaren esparruan.

Bestalde, Batzordeak Estatu kideak eta kirol erakundeak beren azpiegiturak egokitzera animatzen ditu, halako eran non ahalmen urriko pertsonen premiak kontuan hartuko dituzten. Estatu kideek eta tokiko agintariek zaindu behar dute kirol egoitzak eta beren instalazioak prest egon daitezen eta ahalmen urriko pertsonak horietarako sarbidea izan dezaten. Irizpide bereziak hartu behar dira ikasle guztiak eta, bereziki, ahalmen urriko haurrak kirolera iritsi ahal izan daitezen baldintza bere-tan. Klub eta erakundeetan monitore, boluntario eta harrerako pertsonen prestakuntza sustatuko da ahalmen urriko pertsonen harrerari begira.

Batzordea, interesaturiko alderdiei egindako kontsultetan, bereziki ahalmen urriko kirolarien ordezkariekin hitz egiteaz arduratzen da.

- 16) Batzordeak kontuan hartuko du, bere Ahalmen Urritasun gaietarako Europar Batasunaren Estrategiari buruzko Jarduera Planean, ahalmen urriko pertsonentzat kirolak duen garrantzia, eta esparru horretan Estatu kideek aurrera ateratako jarduerari eutsiko die.
- 17) 2006-2010 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lan Planaren esparruan, Batzordeak genero ikuspegia bultzatuko du kirolarekin zerikusia duten jarduera guztietan, eta bereziki kontu egingo die kirolerako sarbideari emakume immigranteen eta etnia minoritarioetako emakumeen kasuan, kirol esparruan erabakiak hartzeko postuetara iristeari eta kirol femeninoaren estaldurari komunikabideetan.

## 2.6. Arrazismoaren eta indarkeriaren prebentzioa eta horien aurkako borroka sendotzea

Kirol gertaeretakoko indarkeriak, batez ere futbol zelaietan, arazo kezkaigarria izaten jarraitzen du, eta hainbat eratakoa izan daiteke. Estadio barnetik kanpora ateratzen joan da, eta are hiri guneeetan zehar ere zabaldu da. Batzordea istiluen prebentzioan laguntzeko konprometitu da elkarrizketa bultzatuz eta bideratuz Estatu kideekin, nazioarteko erakundeekin (hala nola Europako Kontseilua), kirol erakundeekin, legea aplikatzeko ardura duten zerbitzuekin eta interesaturiko beste alderdi batzuekin (hala nola zaletuen elkarteak eta tokiko agintariak). Legea aplikatzeko ardura duten agintariak ezin diete berek bakarrik aurre egin kirol indarkeriaren azpian dauden arazoiei.

Batzordeak bultzatu egiten du, era berean, praktika hobeen eta zaletu arriskutsuei buruzko informazio eraginkorren trukea polizia zerbitzuen eta kirolaren ardura duten agintarien artean. Garrantzi berezia emango zaio poliziaren prestakuntzari, jendetza eta bandalismoaren kontrolaren alorrean.

Kirolak herritar guztiak ukitzen ditu sexua, arraza, adina, ahalmen urria, erlijioa eta sinestea, orientazio sexuala eta gizarte edo ekonomia egoera edozein dela ere. Batzordeak arrazismoa eta xenofobia kondenatu ditu behin eta berriro, EBren balioekin bateraezinak direlako.

- 18) Jarrera arrazista eta xenofoboiei dagokienez, Batzordeak elkarrizketa eta praktika hobeen trukea sustatzen jarraituko du jadanik badauden lankidetzak esparruetan, hala nola Europako Arrazismoaren Aurkako Futbol Sarea (FARE).

Partidetan arrazismo ekintzei aurka egiteko prozedurak izatea aholkatzen die Batzordeak kirol federazioei, jadanik badauden ekimenetan oinarriturik. Era berean, klubuen lizentzia sisteman bereizkeriari dagozkion neurriak indartzea aholkatzen du (ikus 4.7. atala).

Batzordeak:

- 19) sustatu egingo du, indarrean dauden nazio eta Europako arauen arabera, informazio eraginkorraren trukea, bai eta indarkeriazko eta arrazakeria kutsuko istiluen prebentzioari buruzko ezagutza praktikoak eta esperientzia ere, legea aplikatzeko ardura duten zerbitzuen artean eta kirol elkarteekin batera;
- 20) aztertu egingo ditu, EBko eskalan, litezkeen tresna juridikoak eta bestelako arauak kirol gertaeretan nahasmendu publikoak ekiditearren;
- 21) ikuspegi multidisziplinarioa bultzatuko du jokaera antisoziala ekiditeko, gizarte-hezkuntzazko jardueri kasu berezia eginez, hala nola zaletuen heziketari (hau da, zaletuekin egin beharreko epe luzerako lana, jarrera positibo eta indarkeriarik gabea gauzatzearen);
- 22) elkarlana, aldian behingoa eta egituratua, sendotuko du legea aplikatzeko ardura duten zerbitzuen, kirol elkarteekin eta interesaturiko beste alderdien artean;
- 23) ondoko programak erabiltzera animatuko du, kiroleko indarkeria eta arrazakeriari aurre egin eta haien aurka borrokatzea helburu: Gazteria Ekinean, Europa Herritarrekin, Daphne III, Oinarrizko Eskubideak eta Herritartasuna eta Delinkuentziaren Prebentzioa eta haren aurkako Borroka;
- 24) goi mailako konferentzia antolatuko du alderdi interesatuekin, kirol gertaeretakoa indarkeriari aurre egiteko eta haren kontra borrokatzeko neurriak eztabaidatzea helburu.

## 2.7. Balioen trukea munduko beste parteekin

Kirolak eginkizun bat joka dezake EBko kanpoko harremanen hainbat alderdiri dagokienez: kanpoko laguntzarako programa batzuen elementu gisa, herri elkartuekiko elkarrizketaren elementu gisa eta EBko diplomazia publikoaren atal gisa.

Ekintza zehatzen bidez, kirolak kontuan hartzeko ahalmena eskaintzen du hezkuntza, osasuna, kulturarteko elkarrizketa, garapena eta bakea sustatzeko tresna gisa.

25) Batzordeak kirolaren erabilera sustatuko du bere garapen politikaren tresna gisa, eta bereziki:

- kirola eta hezkuntza fisikoa kalitatezko hezkuntzaren funtsezko elementu gisa eta ikastetxeak erakargarriagoak egiteko eta asistentzia hobetzeko bitarteko gisa;
- neskak eta emakumeak hezkuntza fisikora eta kirolera iristea erraztera bideratuko du bere jarduera, emakumeei laguntzea helburu: konfiantza hartzen, gizarteratzea hobetzen, aurreiritziak gainditzen eta bizitzeko era osasungarriak sustatzen eta hezkuntzara iristen;
- kirolaren bidez osasunaren sustapena eta sentiberatasun kanpainak babestuko ditu.


Garapen kanpainen kirolari heldzerakoan, EBk ahalegin handienak egingo ditu Nazio Batuen egungo programekin, Estatu kideekin, tokiko agintariekin eta organismo pribatuekin sinergiak bideratzeko eta, bestalde, gaur egun dauden programa eta jardueretik osagarriak edo berritzaileak diren jarduerak abiaraziko ditu. Ildo horretatik, futbola Afrika, Karibe eta Ozeano Bare aldeko Estatuetan garapenerako indarra bilakatzearren, Batzordeak FIFArekin 2006an sinaturiko hitzarmenaren txostena adibide bat da.

26) EBk, egokia izango denean, kirolari dagozkion gaiak sartuko ditu elkarturiko herriekiko elkarrizketa politikoan eta kooperazioan, hala nola nazioarteko jokalarien transferrak, jokalaria adingabeen esplotazioa, dopinga, dirua kirolaren bidez jurtzea eta segurtasuna nazioarteko kirol gertaera handietan.

Bizkortasuna immigrazio prozeduretan eta bisak lortzerakoan, bereziki hirugarren herrietatik datozen eliteko kirolarien kasuan, elementu garrantzitsua da EBren nazioarteko erakargarritasuna areagotzeko begira. Hirugarren herrialdeekin bisak errazago bideratzea helburu duen oraingo prozeduraz gainera eta Joko Olinpikoetan olinpiar familiako kideei aplikatzekoa den bisa erregimena sendotzeaz bestalde, EB hirugarren herrialdeetatik datozen kirolariak (aldi baterako) hartzeko mekanismo berriak gauzatu beharrean dago.

Batzordeak kasu berezia egingo dio kirol sektoreari:

- 27) berriki aurkeztu den migrazio zirkularrari eta hirugarren herrialdeekiko mugikortasun elkarteei buruzko Komunikazioa abiatzerakoan;
- 28) hirugarren herrialdeetako hainbat herritar sail hartzeko –helburu ekonomikoekin–, plan harmonizatuak egiterakoan, 2005eko Migrazio Legalaren arloko Politika Plana oinarri harturik.





## 2.8. Garapen iraunkorrari laguntzea

Kirolean aritzeak, bata instalazioek eta kirol gertaerek ere, eragin esanguratsua dute ingurumenean. Ingurunearen kudeaketa osasuntsua sustatzea garrantzitsua da, egokia hainbat alderdiri ekiteko, hala nola kontratazio publiko ekologikoa, berotegi efektuko gas igorpenak, hondakinak ezabatzea eta lurzoru eta uraren tratamendua. Europako kirol erakundeek eta kirol gertaeren antolatzaileek ingurumen xedeak ezarri beharko lituzkete, ingurumenaren ikuspegitik beren jarduerak iraunkorrak izan daitezten. Ingurumen kontuetan beren sinesgarritasuna hobetuz gero, erakunde arduradunek etekin bereziak jasotzea espero lezaketekirol gertaeren egoitza gisa proposatzerakoan, baita natura baliabideen erabilera razionalizatuagoarekin zerikusia duten onurak ere.

Batzordeak:

- 29) elkarrizketa egituratua erabiliko du nazioarteko eta Europako kirol erakunde nagusiekin, baita beste hainbat alderdi interes-aturekin ere, animatzeko, bai berak eta bai beraietako kideak, Ingurumen Kudeatze eta Ikuskatze Sistemari (EMAS) eta etiketa ekologikoa emateko erkidegoko sistematan parte har dezaten eta kirol gertaera handietan sistema boluntario horiek bultzatzen;
- 30) kontratazio publiko ekologikoa bultzatuko du Estatu kideekiko eta interesa duten beste alderdiekiko elkarrizketa politikoan;
- 31) interesa duten alderdi egokiekin –politikak lantzeko arduradunak, ETE, tokiko erkidegoak, etab.– lankidetzan mamituriko zuzentzarauen bidez elkarrekin lan egiteko premia kontzientziazteari ekingo dio, lankidetzari hitzarmenak direla medio, eskualde mailan kirol gertaerak era iraunkorrean antolatzearen;
- 32) LIFE+ programa berriaren «Informazioa eta Komunikazioa» osagaiaren ataltzat hartuko du kirola.



### 3. KIROLAREN EKONOMIA ALDERDIA

---

Bizkor hazten ari den sektore dinamikoa da kirola, gutxietsiriko eragin makroekonomikoa du eta Lisboako helburuak lortzen lagun dezake hazkundeari zein lanpostuak sortzeari dagokionez. Horretaz gainera, toki eta eskualdeko garapenerako, hiri biziberritzerako edo landa garapenerako balio dezake. Kirolak sinergiak ditu turismoarekin eta azpiegiturak hobetzeko pizgarria izan daiteke, baita partaidetza berriak ezartzeko ere, kirol eta aisia instalazioak finantzatzeari begira.

Kirolaren pisu ekonomikoari buruz, oro har, datu fidagarriak eta konpara litezkeenak ez izan arren, horren garrantzia berretsi egin dute hainbat alderdi ikertu duten azterlanek eta analisiek: kontu nazionalak, gorabehera handiko kirol gertaeren alderdi ekonomikoa eta jarduera fisikorik ezaren kostuak, biztanleriaren zahartzeari buruzkoak barne hartzen dituztenak. Austriako Presidentziaren aldiaren aurkezturiko azterlan batek iradokitzen zuenez, 2004an, kirolak, zentzu zabalean, laurhun eta zazpi mila milioi euroko balio erantsia sortu zuen, hau da, EBko BPGaren %3,7, eta hamabost milioi pertsonari eman zien lana, hau da, langileen %5,<sup>6</sup>. Kirolaren ekarpen horrek ikusgaiagoa izan beharko luke eta kontuan hartu beharko litzateke EBren politiketan.


Kirolaren balio ekonomikoaren zati gero eta handiago batek zerikusia du jabetza intelektualeko eskubideekin. Eskubide horiek egile eskubideekin, komunikabide komertzialekin eta markekin loturik daude, baita

---

6. D. Dimitrov / C. Helmenstein / A. Kleissner / B. Moser / J. Schindler: Die makroökonomischen Effekte des Sports in Europa, Studie im Auftrag des Bundeskanzleramts, Sektion Sport, Viena, 2006.

irudi eta zabalkunde eskubideekin ere. Gero eta globalizatuagoa eta dinamikoagoa den sektore batean, jabetza intelektualeko eskubideen arloko arauak mundu osoan modu eraginkorrean aplikatzea, kirol ekonomiaren osasunaren funtsezko alderdia izaten hasi da. Bestalde, garrantzitsua da hartzaileei urrunetik kirol gertaeretara iristeko aukera bermatzea, EBko lurraldeko mugaz gaindiko kirol gertaerei dagokienez.

Bestalde, kirolaren garrantzi ekonomiko globala gorabehera, kirol jarduera gehienak irabazteko asmorik gabeko egituretan gertatzen dira, eta horietariko asko finantzazio publikoaren mende daude herritar guztiei kirol jardueretarako sarbidea eman ahal izateko.



### 3.1. Datuetan oinarrituriko kirol arloko politiketarantz

EBren mailan kirol arloko ekintza politikoak abiarazteak eta lankidetzeta hobetzeak ezagupen oinarri sendoak izan behar dituzte euskarri. Kirolaren arloan plangintza estrategikoa eta politikak lantzea optimizatzeko baditugu, beharrezkoa dugu datuen kalitatea hobetzea eta horiek konparagarriagoak egitea.

Interesaturiko aldeek, hala gobernuetakoek nola gobernu kanpokoek, behin eta berriro eskatu diote Batzordeari Europako kirolaren definizio estatistikoa ezartzea eta ahaleginak koordinatzea eta, hortik aurrera, kirolari buruzko estatistikak eta harekin loturikoak sortzea.

- 33) Batzordea kirolaren eragin ekonomikoa neurtuko duen europar estatistika metodo bat ezartzen saiatuko da, Estatu kideekin lankidetzeta estuan, arloko estatistika kontu nazionaletarako oinarri gisa, denborarekin, gaiari buruzko europar kontu satelite baterako bidea eman lezakeena.
- 34) Era berean, inkesta bereziak egiten jarraitu beharko litzaiteke kirolari buruzko informazioaz zenbait urtetan behin (Eurobarometroko inkestak, adibidez), bereziki ekonomiaz bestelako informazioa jasotzeko, kirol arloko estatistika kontu nazionalen bidez lortu ezin dena (parte hartze indizeak, boluntarioei buruzko datuak, etab.).
- 35) Batzordeak azterlan bat abiaraziko du Lisboako Agendari kirol sektoreak egindako ekarpena ebaluatzearen: zuzena (BPGari, hazkundeari eta enpleguari dagokienez) eta zeharkakoa (hezkontza, eskualdeko garapena eta EBren erakargarritasun handiagoa direla bide).
- 36) Batzordeak antolatu egingo du, Estatu kideen eta kirol federazioen artean, gorabehera handiko kirol gertaeren antolakuntzari dagozkion praktika onen trukea, ekonomia hazkundera, lehiakortasuna eta lana bultzatzeari begira.

### 3.2. Kirolaren finantzazio publikorako oinarri seguruago baten bila

Kirol erakundeek diru sarrera ugari dituzte, hala nola klubaren tarifak eta sarreraren salmenta, publizitatea eta babesleak, zabalkunde eskubiak, sarrerak birbanatzea kirol federazioen artean, merchandising-a, finantza publikoa eta abar. Hala eta guztiz, kirol erakunde batzuk besteak baino askoz errazago irits daitezke operadore ekonomikoetatik datozen baliabideetara, nahiz zenbait kasutan birbanatze sistemak ongi funtzionatzen duen. Oinarrizko kirolean, partaidetza publiko sendo baten bidez bakarrik sendotu daitezke aukera berdintasuna eta kirol jardueretarako sarbide askea. Oinarrizko kirolerako eta guztientzako kirolerako finantzazioaren garrantzia ulertzen du Batzordeak, eta finantzazio hori erkidegoaren legeriaren arabera ematearen aldekoa da.

Estatu kide askotan, kirola, neurri batean, estatuko loteria edo apostu zerbitzuen, edo estatuko lizentzia dutenen gaineko tasa edo atxikipen baten bidez finantzatzen da. Batzordeak Estatu kideak gonbidatzen ditu finantzazio eredu bat mantendu eta garatzeko modurik onenaz hausnartzera, kirol erakundeek epe luzerako laguntza ematearren.

- 37) Kirolaren finantzazioari buruzko hausnarketari laguntzearen, Batzordeak azterlan bereizi bat egingo du Estatu kideetako oinarrizko kirolaren eta guztientzako kirolaren finantzazioari buruz, hala iturri publikoetatik nola pribatuetatik datorrena, baita eremu horretan gertatzen ari diren aldaketan eraginaz ere

Zeharkako zergapetzeari doakionez, BEZari buruzko EBko legeria Kontseiluaren 2006/112/EB Zuzentarauan jasota dago, eta horren helburua zera da, BEZ arloan Estatu Kideek duten legeriaren aplikazioak konkurrentzia ez desitxuratzea eta ondasun eta zerbitzuen joan-etorri askea ez oztopatzea. Zuzentarauak kontuan hartzen du Estatu kideek BEZa ordaintzea salbuesti ditzaketela kirolarekin loturiko zerbitzu jakin batzuk eta, salbuespena ezinezkoa denean, tasa gutxituak aplikatzeko aukera dagoela zenbait kasutan.

- 38) Kirolak gizartean duen eginkizuna eta tokiko sustraitze sendoa kontuan izanik, kirolari oraingo BEZ tasa gutxituak aplikatzen jarraitzeko aukera defendatuko du Batzordeak.

## 4. KIROLAREN ANTOLAKUNTZA

---

Europako kirolari buruzko eztabaida politikoak garrantzi handia eman ohi dio «Europako Kirol Eredua» delakoari. Batzordearen iritziz, europar kirolaren balio eta tradizio jakin batzuk sustatu beharko lirarteke. Dena den, Europako kirol egituren aniztasuna eta konplexutasuna kontuan izanik, European kirolaren antolakuntza eredu batua definitzen saiatzea ez dela errealista deritzo. Bestalde, Estatu kide gehienetan komunak diren gizarte eta ekonomia aurrerabideak (merkaturatze gero eta handiagoa, gastu publikoak aurre egin beharreko erronkak, parte hartzaileen kopurua gehitzea eta langile boluntarioen kopurua gelditzea) erronka berriak dira Europako kirolaren antolaketari begira. Interesaturiko beste zenbait alderdi berri (antolaturiko diziplinetatik kanpoko parte hartzaileak, kirol klub profesionalak eta abar) agertu izana gobernantza, demokrazia eta interesak ordezkatzeari buruzko galdera berriak planteatzen ari da Kirol Mugimenduaren barruan.

Batzordeak praktika hobeen trukea bultzatzen lagun dezake kirol gobernantzaren alorrean. Era berean, eremu honetan gobernantza oneko printzipioen multzo komun bat ezartzen lagun dezake, hala nola gardentasuna, demokrazia, erantzukizuna eta alderdi interesatuen ordezkaritza (elkartek, federazioak, jokalaria, klubak, ligak, zaletuak eta abar). Hartarako, Batzordea aurreko lanetan<sup>7</sup> inspiratuko da. Era berean, emakumeak kudeaketa eta lidergo postuetan egon beharrak arreta erakarri beharko luke.

---

7. Esaterako, «The Rules of the Game» biltzarra, 2001ean Automobilaren Nazioarteko Federazioak (FIA) eta Europako Olinpiar Batzordeek (EOC) antolatua, eta Europako Kirolari buruzko Txosten Askea, 2006an egina.

Kirol erakundeen autonomia eta ordezkaritza egiturak (ligak, esaterako) aintzat hartzen ditu Batzordeak. Era berean, gobernantza, funtsean, kirola zuzentzen duten organismoen erantzukizuntzat jotzen du, baita, neurri batean, Estatu kideena eta lan munduko ordezkariena ere. Hala ere, kirol erakundeekiko elkarrizketak Batzordearen arreta zenbait alorretara erakarri du, ondoren tratatuko direnak. Batzordearentzat, autorregulazioaren bidez heldu ahal zaie erronka gehienei, gobernantza onaren printzipioak errespetatuz, baldin eta EBko legeria betetzen bada, eta prest dago eginkizun bideratzailea betetzeko edo parte hartzeko beharrezkoa izango denean.





## 4.1. Kirolaren berezitasuna

Kirol jarduera EBko legeria aplikatzearen mende dago, eta hori xeheki deskribatzen da Batzordearen zerbitzuen lan dokumentuan eta haren eranskinetan. Konkurrentzia arloko legeriak eta barne merkaturari buruzko erabakiak aplikatzen zaizkio kirolari, ekonomia jarduera den neurrian. Kirola, halaber, EBko legeriaren beste alderdi garrantzitsu batzuen mende dago, hala nola nazionalitate arrazoien-gatik diskriminatzeko debekua eta Batasuneko herritartasunari eta lanbide arloan gizon-emakumeek duten berdintasunari dagozkien xedapenak.

Aldi berean, bereizgarri jakin batzuk ditu kirolak, «kirolaren berezitasuna» izendatu ohi dena. Europar kirolaren berezitasunari bi ikuspegiotatik heldu dakiok:

- Kirol jardueren berezitasuna eta kirol arloko arauak, hala nola gizonek eta emakumeek bereiz lehiatzea, parte hartzaile kopuru mugatuak lehiaketetan edo emaitzen ziurtasunik eza bermatzeko premia eta lehiaketa oreka begiratzea lehiaketa beretan parte hartzen duten klubuen artean;
- Kirol egituraren berezitasuna, zeinak barne hartzen baititu, besteak beste: kirol erakundeen autonomia eta aniztasuna; lehiaketen egitura piramidala, oinarritik eliterainokoa, eta elkartasun mekanismo egituratuak maila eta eragile desberdinen artean; kirola oinarri nazional baten gainean antolatzea; eta kirol bakoitzeko federazio bakarra printzipioa.

Europako auzitegien jurisprudentziak eta Batzordearen erabakiek agerian ipintzen dute kirolaren berezitasuna ezagutu eta kontuan hartu dela. Era berean, argibideak ematen dituzte EBko legeria kirolari aplikatzen zaion eraz. Sendoturiko jurisprudentziarekin ados, kirolaren berezitasuna aintzat hartzen jarraituko da, baina ezin interpretatuko da halako eran non EBko legeriaren aplikazioaren salbuespen orokorra justifikatuko duen.

Batzordeko zerbitzuen lan dokumentuan eta haren eranskinetan xeheki azaltzen denez, kirol arloko antolakuntza arau batzuek, beren bidezko helburuetan oinarriturik, ziur asko ez dituzte EE Ituneko monopolioen aurkako erabakiak hausten, baldin eta horiek eraginiko konkurrentziaren aurkako ondorioak, halakoak izanez gero, berezkoak eta lortu nahi diren helburuen heinekoak badira. Arau horien adibide izango lirateke: «joko arauak» (adibidez, partiden iraupena edo zelai gaineko jokalarien kopurua finkatzen duten arauak), kirol lehiaketetan aukeratze irizpideei dagozkien arauak, «bertakoak eta kanpokoak» arauak, klub lehiaketetan askoren jabegoa galarazten duten arauak, talde nazionalen osaerari dagozkion arauak, antidopatzeko arauak eta transfer aldiei dagozkien arauak.

Hala ere, kirolaren alderdi arautzaileei dagokienez, kirol arau jakin bat EBko konkurrentzia legeriarekin bateragarria ote den xedatzeko ebaluazioa kasuz kasu burutzekoa da soil-soilik, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak berriki berretsi duenez Meca-Medina erabakian<sup>8</sup>. Auzitegiak azalpen bat eman zuen EBko legeriak kirol arauetan duen eraginaz eta baztertu egin zuen «kirol arau soilak» nozioa, garrantzi-gabekotzat jo baitzuen EBko konkurrentzia arauak kirol sektoreari aplikatzeko kontuez den bezainbatean.

Auzitegiak aintzat hartu zuen kirolaren berezitasuna kontuan hartzekoa dela, noiz eta kirol lehiaketaren antolaketari eta funtzionamendu egokiari berezkoak zaizkien konkurrentziaren gaineko eragin murriztaileek ez duten huts egiten EBko konkurrentzia arauetan, baldin eta eragin horiek lortu nahi den benetako eta bidezko kirol interesaren heinekoak badira. Proporzionaltasun froga baten beharrik inplikatzeko du kasu bakoitzaren banakako ezaugarriak kontuan hartu beharrekoak direla. Ez du onartzen, beraz, legeriaren aplikazioari buruzko orientazio orokorrak formulatzea, kirol sektoreko konkurrentzia kontuetan.

---

8. C-519/04P Gaia, Meca-Medina/Batzordea, GOM. 2006, I-6991. Argibide gehiago Batzordeko zerbitzuen lan dokumentuan.

## 4.2. Joan-etorri askea eta naziotasuna

Oinarri nazionalaren ganean kirola eta lehiaketak antolatzea, Europako kirol planteamenduaren historia eta kultura ondarearen parte bat da eta europar herritarren nahiei erantzuten die. Bereziki, talde nazionalek funtsezko eginkizuna betetzen dute, ez bakarrik nortasun kontuetan, baita oinarrizko kirolarekin elkartasuna bermatzeko ere, eta, ondorioz, laguntza ekartzea merezi dute.

Naziotasunagatiko bereizkeria debekaturik dago Itunetan, non xedaturik baitago Batasuneko herritar guztiek Estatu kideetako lurraldean aske joan-etortzeko eta kokatzeko duten eskubidea. Itunek, orobat, naziotasunean oinarrituriko edozein motatako bereizkeriak Estatu kideetako langileen artetik ezabatzea dute helburu, enplegu, ordainsari eta bestelako lan edo kontratazio baldintzei dagokienez. Zerbitzuak ematerakoan, debeku berak aplikatzen zaizkio naziotasunean oinarrituriko bereizkeriari. Bestalde, kirol klubetako kideak izatea eta lehiaketetan parte hartzea faktore egokiak dira harrera herrialdean bizi direnen gizarteratzea bultzatzeko.

Tratu berdintasuna, halaber, EBrekin bereizkeriarik ezeko klausulak dauzkaten itunak sinatu dituzten Estatu kideetako herritarrei eta Estatu kideetako lurraldean legeriaren arabera lan egiten dutenei dagokie.

- 39) Batzordeak hertsatuki eskatzen die Estatu kideei eta kirol erakundeek naziotasunagatiko bereizkeriaren aurka borroka daitezten kirol guztietan. Bere aldetik, kiroleko bereizkeriaren aurka borrokatuko da Estatu kideekiko elkarrizketa politikoaren bidez, aholkuak, alderdi interesatuekiko elkarrizketa egituratuak eta, hartaraz gero, arau hausteagatiko prozedurak direla medio.



Batzordeak berresten du onartzen dituela joan-etorri askearen printzipioari ezarritako murrizketak, mugatuak eta proportzionatuak (EBko Ituneko xedapenekin ados datozenak joan-etorri aske eta Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren epai kontuetan), bereziki ondokoei dagokienez:

- talde nazionalen lehiaketetarako atleta nazionalak hautatzeko eskubidea;
- lehiaketa batean parte hartzen dutenen kopurua mugatu beharra;
- talde kirolean jokalarien transferretarako epeak ezartzea.

40) Naziokoak ez direnak banakako lehiaketetara iristeari dagokionez, Batzordeak azterlan bat abiarazteko asmoa du kontu konplexu honen alderdi guztiak aztertzeke asmoz.



### 4.3. Transferrak

Transfer kontuetan araurik ez denez, kirol lehiaketa guztiak arriskuan gerta litezke denboraldi jakin batean zehar klubek lehiakideei nagusitzeko egin lezaketen jokalaria kontratazioa dela eta. Aldi berean, jokalarien transferrari buruzko edozein arauk EBko legeria errespetatu beharko du (konkurrentzia kontuen inguruko erabakiak eta langileen joan-etorri askeari buruzko arauak).

2001ean, konkurrentzia arloko legeria komunitarioa ustez ez betetzearekin loturiko kasu batean eta Batzordearekin eztabaidatu ondoren, futboleko agintariek FIFako araudia berrikustea erabaki zuten nazioarteko futbol transfer kontuetan, ondoko alderdiok oinarri harturik: kirol klubek jasaniko prestakuntza kostuen ordaina, transferaldiak jartzea, jokalaria adingabeen eskola hezkuntza babestea eta auzitegi nazionalerako sarbidea bermatzea.

Sistema hau praktika onen adibidetzat jotzen du Batzordeak, klubaren arteko lehiaketa oreka bermatu eta, aldi berean, EBko legeriaren betebeharrak kontuan hartzen dituelako.

Jokalarien transferrari dagokionez, sortzen dituen finantza fluxuen legezketasunak kezkatzen du orobat. Transferrekin zerikusia duten diru fluxuen gardentasuna areagotzearen, transferren informazio eta egiaztatze sistema bat ezartzea irtenbide eraginkorra izan liteke. Halako sistemak kontrol funtzioa soilki izan beharko lukeela deritzo Batzordeak; finantza transakzioak zuzenki egin beharko liriteke inplikaturiko aldiaren artean. Kirola zein den, dagokion Europako kirol erakundeak edo Estatu kideetako informazio eta egiaztatze sistema nazionalak kudea lezaketeko sistema.

#### 4.4. Jokalarien agenteak

Jokalarien benetako europar merkatu bat garatzea eta zenbait kirole-tan kirolarien ordainsarien maila igotzea direla bide, agenteen jarduera areagotu egin da. Ingurune juridiko gero eta konplexuago batean, jokarlari (eta kirol klub) askok agenteen zerbitzuez baliatzen dira kontratuak negoziatu eta sinatzeari begira.

Badira zenbait agentek gauzaturiko arauz kanpoko praktiken berri ematen duten txostenak, ustelkeria, diru zuritze eta jokarlari adingabeen esplotazio kasuak ekarri dituztenak. Praktika horiek, oro har, kalte egiten diote kirolari eta galdera garrantzitsuak sorrarazten dituzte gobernantza gaien inguruan. Jokalarien, batez ere adingabeen, osasuna eta segurtasuna babestu eta delitu egintzen aurka borrokatu beharra dago.

Bestalde, Estatu kide batetik bestera desberdinak diren araudien mende daude agenteak. Estatu kide batzuek jokalarien agenteei buruzko legeria berezia sartu dute; beste batzuetan, ordea, enplegu agentziei dagokiena da aplikatu beharreko legea, baina jokalarien agenteei erreferentzia eginez. Gainera, nazioarteko zenbait federaziok (hala nola FIFA edo FIBA) beren araudi bereziak ezarri dituzte.



Horregatik guztiagatik, jokalarien agenteen jarduera erregulatzea eskatu zaio behin eta berriro EBri, legegintza ekimen baten bidez.

- 41) Batzordeak eragina neurtzeko ebaluazio bat egingo du EBko jokalarien agenteen jardueraz ikuspegi garbia izateko, baita europar mailan jardun beharra ote dagoen zehaztuko duen ebaluazio bat egiteko ere eta, aldi berean, litezkeen aukerak aztertzeko.

#### 4.5. Adingabeen babesa

Gazteen esplotazioak aurrera darrai. Lehiatzeko hautatuak ez izanik, atzerriko herrialde batean abandonatzen diren haurrena da arazorik larriena, askotan legez kontrako egoeran geratzen direnak, errazago esplotatuak izateko eran. Kasurik gehienetan fenomeno hau gizakien trafikoaren definizio juridikoan sartzen ez bada ere, ezin onartuzkoa da, EBk eta Estatu kideek ezaguturiko funtsezko balioak kontuan izanik. Era berean, kirolaren balioen aurkakoa da. Bidaiderik gabeko adingabeen kasuan, ezinbestekoa da Estatu kideen immigrazio arloko legerian jasoriko babes neurriak zorrotzasunez aplikatzea. Orobat, kirol barreneko sexu abusuaren aurka eta adingabeen jazarpenaren aurka borrokatu beharra dago.

- 42) Batzordeak EBko legeriaren inplementazioa ikuskatzen jarraituko du, bereziki gazteak lanean babesteari buruzko Zuzentaraua. Haurren lanari buruzko azterlan bat abiarazi du berriki, Zuzentaruaren inplementazioari egin beharreko ikuskapenaren osagarri gisa. Jokalari gazteak Zuzentaruaren eremuan sartzen ote diren gaia kontuan hartuko da azterlan horretan.
- 43) Gazteen osotasun moral eta fisikoaren babesean elkarlanean jardutea proposatuko die Batzordeak Estatu kideei eta kirol erakundeei, indarrean dagoen legeriari buruzko informazioa zabalduz, gutxieneko arauak ezarriz eta praktika hobeen trukearen bidez.

#### 4.6. Ustelkeria, dirua zuritzea eta beste finantza delitu mota batzuk

Ustelkeria, dirua zuritzea eta beste finantza delitu mota batzuk erasaten ari zaizkio kirolari toki, nazio eta nazioarteko mailan. Sektorearen nazioartekotze maila nabarmena kontuan izanik, kiroleko ustelkeriak mugaz gaindiko alderdiak izan ohi ditu askotan. Europa mailako ustelkeria arazoak Europa mailan borrokatu beharrekoak dira. EBk dirua zuritzearen aurka borrokatzeko dituen mekanismoak, era berean, modu eraginkorrean aplikatu behar dira kirol sektorean.

- 44) Batzordeak lagundu egingo die kirolaren interesak ordezkatzeko dituzten partaidetza publiko-privatuei eta ustelkeriaren aurkako borrokaren ardura duten agintariei, zeinek, beren aldetik, zehaztu beharko baitituzte kirol sektorean ustelkeriak erasotzen errazak diren puntuak eta prebentzio eta errepresio estrategia eraginkorrak gauzatzeko lagunduko baitituzte ustelkeria horren aurka egiteko.
- 45) Batzordeak dirua zuritzearen aurkako borroka arloan EBk duen legeriaren inplementazioa ikuskatzen jarraituko du kirol sektoreari dagokionez.

#### 4.7. Kluben lizentzia sistemak

Batzordeak aintzat hartzen du nazio eta Europa mailako klub profesionalentzat lizentzia sistema sendoak izatea baliagarria izatea kirol arloan gobernantza ona bultzatzeari begira. Oro har, klub guztiek finantza kudeaketa eta gardentasun kontuetan, oinarrizko arau berak errespetatu ditzaten bermatzea dute helburu lizentzia sistemak, baina baita bereizkeria, indarkeria, adingabeen babes eta prestakuntzari dagozkion xedapenak ere har litzakete barne. Sistema horiek konkurrentzia eta barne merkatuari buruzko xedapenekin bateragarriak izan behar dute, eta bidezko helburua –kirolaren antolaketa egoki eta funtzionamendu onarekin loturikoa– lortu nahi horretan ezin dira beharrezkoaz haratago joan.



Lizentzia sistemen inplementazioan eta mailaz mailako indartzearen inguruan kontzentratu behar dira ahaleginak. Futbolaren kasuan, non laster lizentzia sistema bat nahitaezkoa izango den europar lehiaketetan parte hartu beharreko klubentzat, nazio mailako sistemak sustatu eta erabiltzearen inguruan kontzentratu behar da ekintza.

- 46) Batzordeak kirol erakundeekiko harremana bultzatuko du lizentzia sistema autorregulatzailerak inplementatu eta indartzeari ekitearren.
- 47) Futboletik abiatuz, Batzordeak arlo honetako lizentzia sistemen eta praktika hobeen inguruko konferentzia bat egiteko asmoa du UEFArekin (Europako Futbol Elkarteen Batasuna), EPFLrekin (Europako Futbol Liga Profesionalen Batasuna), FIFProrekin (Futbolari Profesionalen Nazioarteko Federazioa) eta nazio elkarte eta ligekin.



## 4.8. Komunikabideak

Kirol sektorearen eta komunikabideen (telebista, bereziki) arteko harremani dagozkien kontuek garrantzi erabakigarria hartu dute Europan zabalkunde eskubideak lehen dirubide bilakatu denez gero. Kirol gertaeren zabalkunde eskubideak, beren aldetik, eduki iturri erabakigarri dira komunikabideetako operadore askorentzat.

Kirola motor bat izan da komunikabide eta telebista interaktiboko zerbitzu berriak irits daitezen. Informaziorako eskubideari laguntzen jarraituko du Batzordeak, baita gizarteak interes handiko edo garrantzi bereziko kirol gertaeratzat hartzen dituen horien zabalkundera ahalik eta herritar gehienak iristeari ere.

Konkurrentzia gaitan EE Itunaren xedapenak kirol gertaeren zabalkunde eskubideen salmentari aplikatzeak kontuan hartzen ditu eremu horretako ezaugarri berezi batzuk. Batzuetan, kirol elkarte batek klubak izenean kolektiboki saltzen ditu kirol gertaerak zabaltzeko eskubideak (eskubide horiek klubek bakarka merkaturatzearen alternatiba gisa). Zabalkunde eskubideen salmenta kolektiboak kezka areagotzen baditu konkurrentzia kontuei dagokienez, Batzordeak onartu egin du baldintza jakin batzuekin. Salmenta kolektiboa garrantzizkoa izan daiteke diru sarrerak birbanatzeari begira eta, horrenbestez, kirolaren barneko elkartasuna sendotuko duen tresna izan daiteke.

Batzordeak aintzat hartzen du diru sarreren bidezko birbanatzea klubak artean, txikiak barne, eta kirol profesionalaren eta ez profesionalaren artean.

- 48) Elkartasun mekanismoak sortzeari eta mantentzeari behar adinako arreta jartzea gomendatzen die Batzordeak kirol erakundeei. Kirol gertakarien zabalkunde eskubideen eremuan, mekanismo horiek salmenta kolektiboaren sistemaren bidez edo, hautabide gisa, klubak banakako salmenta bidez gauza daitezke, kasu bietan elkartasun mekanismo sendo bati loturik.

## 5. JARRAIPENA

---

Batzordeak Liburu Zuri honetan ageri diren ekimenen jarraipena egingo du kiroleko alderdi interesatuekiko elkarrizketa egituratu bat abiaraziz, Estatu kideekin lankidetzan jardunez eta kirol sektorean gizarte elkarrizketa bultzatuz.

### 5.1. Elkarrizketa egituratua

Egitura konplexu ugari eta askotarikoak izatea da europar kirolaren ezaugarria, Estatu kideetan hainbat eratako forma juridiko eta autonomia maila desberdinekoak agertzen dituztela. Beste sektore batzuetan ez bezala eta kirol antolatuaren berezko izaera dela eta, Europako kirol egiturak ez dira nazio eta nazioarte mailako kirol egiturak bezain ongi garatuak izaten. Gainera, oro har, europar kirola kontinente mailako egituren arabera antolaturik dago, eta ez EB mailan.

Alderdi interesatuak ados daude Batzordeak bete beharreko eginkizun garrantzitsuari dagokionez, kirolari buruzko europar eztabaidarako lagungarri baita, horiekiko elkarrizketarako plataforma bideratzen duela. Itunen arabera, alderdi interesatuekiko kontsulta zabala da Batzordearen betebeharretako bat.

Europako kirol kulturaren konplexutasuna eta aniztasuna kontuan izanik, Batzordeak, bereziki, ondoko aktoreak barne hartu nahi ditu elkarrizketa egituratu horretan:

- europar kirol federazioak;
- kirol sektoreko europar erakundeak, bereziki Europako Olinpiar Batzordeak (EOC), Europako Olinpiada Bereziako Batzordea (EPC) eta gobernuen kanpoko kirol erakundeak;
- kirol sektoreko erakunde nazionalak eta olinpiar batzorde nazionalak eta olinpiada bereziak;
- Europa mailan ordezkatutako kirol eremuko beste aktore batzuk, lan munduko ordezkariek barne;
- Europako eta nazioarteko beste erakunde batzuk, bereziki Europako Kontseiluko kirolerako egiturak eta Nazio Batuen organismoak, hala nola Unesco eta Osasunaren Mundu Erakunde (WHO).

49) Batzordeak elkarrizketa egituratua antolatzeke asmoa du, modu honetara:

- Kirolaren Europako Foroa: kirolean interesaturiko alderdi guztiak bilduko dituen urtean behingo biltzarra.
- Gaikako eztabaidak, parte hartzaile kopuru mugatuarekin.

50) Gainera, europar kirol agerraldiei ikusgaitasun handiagoa ematen saiatuko da. Batzordeak laguntza ekartzen dio egiteko den Europako Kirol Hiriburuak ekimenaren garapenari.

## 5.2. Estatu kideekiko lankidetzak

Kirol kontuetan, EB mailan, ministroen bilera informaletan gertatzen da Estatu kideen arteko lankidetzak, eta kirol zuzendarien bidez administrazio mailan. 2004an, EBko kirol ministroek kirolerako agenda jarraia moldatu zuten, kirolari buruz Estatu kideek egin beharreko eztabaidetarako lehentasuneko gaiak ezartzearen.

- 51) Batzordeak, Liburu Zuri honetan aipaturiko gaiei ekitea helburu, beraren eta Estatu kideen artean dagoen lankidetza sendotzea proposatzen du.

Batzordearen proposamen batean oinarriturik, Estatu kideek agenda jarraiararen mekanismoa indartzeko gogoia izan dezakete, adibidez:

- kirol arloko politika egiterakoan lankidetza lehentasunak elkarrekin zehazteko;
- aldiaren behin EBko kirol ministroei aurrerabideen berri emateko.

Lankidetza estuagoari begira, beharrezkoa da kirol ministroen eta zuzendarien artean aldiaren behin bilerak antolatzea Presidentzia bakoitzaren esparruan, hartarako datozen presidentziei dagozkien hemezortzi hilabeteko taldeak kontuan hartu beharko liriatekeelarik.

- 52) Batzordeak «Pierre de Coubertin» Jarduera Planaren inplementazioaren berri emango du agenda jarraia mekanismoaren bidez.

### 5.3. Gizarte elkarrizketa

Kirolaren gobernantzak aurre egin beharreko erronka kopuru gero eta handiagoa kontuan harturik, Europa mailako gizarte elkarrizketa lagungarri izan daiteke enplegatzailen eta atleten kezka komunei heltzerakoan, sektoreko lan harremanei eta lan baldintzei dagozkien hitzarmenak barne, EE Itunean xedaturikoaren arabera.

Kirol sektorean, oro har, eta bereziki futbol sektorean gizarte elkarrizketa sendotzea helburu duten proiektuak finantzatu ditu Batzordeak. Proiektu horiek Europa mailako gizarte elkarrizketarako oinarria ezarri dute, bai eta europar erakundeak sendotu ere. Batzordeak Gizarte Elkarrizketarako Sektore Batzordea sortu dezake gizarte solaskideen baterako eskaeran oinarriturik; Batzordearentzat, kirol sektoreko edo horren azpisektoreetako (hala nola futbola) europar gizarte elkarrizketa tresna bat da, gizarte solaskideei lan harremanak eta lan baldintzak modu parte hartzaile eta eraginkorrean itxuratze bide emango liekeena.

Eremu horretan gizarte elkarrizketak, halaber, elkarrekin adosturiko jokabide kodeak edo estatutuak ezartzea ekar lezake, eta horien bidez prestakuntzarekin, lan baldintzekin edo gazteen babesarekin loturiko gaiei ekin ahal izango litzaieke.

- 53) Kirol sektorean gizarte elkarrizketarako europar batzordeak ezartzeko ahalegin guztiak bultzatu eta atseginez hartzen ditu Batzordeak. Hala enplegatzaileei nola enplegatuei laguntza ematen jarraituko du eta segida emango dio horri buruz kirol erakunde guztiekin zabalduko elkarrizketari.

Europako Gizarte Funtsaren bidez, konbergentzia xedean dauden eskualdeetan Estatu kideek gizarte solaskideen gaitasunak eta baterako jarduerak garatzeko jarri beharko luketen finantzazioak, orobat, gizarte solaskideen gaitasunak kirol sektorean garatzea ere izan beharko luke helburu.



## 6. ONDORIOA

---

Liburu Zuri honek Batzordeak implementatu edo finantzatu beharreko jarduera multzo bat dauka. Denera jota, jarduera horiek «Pierre de Coubertin» Jarduera Plana moldatzen dute, eta datozen urteetan horrek gidatuko du Batzordea kirolarekin zerikusia duten jardueretan.

Liburu Zuri honek indarrean dauden Itunak eskainitako aukerak ahalik eta gehien aprobetxatu ditu. 2007ko ekaineko Europako Kontseiluak Gobernuen arteko Konferentziari eman zion aginduak Itunean kirol gaien inguruko xedapen bat sartzea hartzen du kontuan. Beharrezkoa izanez gero, Batzordea gai horretara itzul daiteke eta beste neurri batzuk seinala litzake Itunaren beste antolaera baten testuinguruan.

2007ko udazkenean, Batzordeak konferentzia bat antolatuko du Liburu Zuria kirol arloko alderdi interesatuei aurkezteko. Biltzar horren ondorioak EBko kirol ministroei arkeztuko zaizkie 2007 urtea amaitu baino lehen. Liburu Zuria, era berean, Europako Parlamentuari, Eskualdeetako Lantaldeari eta Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeari aurkeztuko zaie.

